

## PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

---

Aplikazio bat egingo dugu aparkatzeko zailtasunak dituzten pertsonentzat. Aplikazio honen bitartez, aparkaleku guztiak kontrolatuta daude eta aplikazioak badaki non dauden aparkatzeko leku libreak. Ez dugu bakarrik kotxetarako erabiliko, hau da, sistema bera erabiliko dugu bizikletak eta patinete elektrikoak aparkatzeko. Garraio hauek aparkatzeko libre dauden lekuak esango digu. Horrez gain, beste zerbitzu batzuk eskaintzen ditu, esaterako, aparkalekuak bilatzen ditu, TAO eta Parking-a ordaintzen du, kotxearen kokapena jakinarazten du, GPS zerbitzua ematen dizu eta isunak kudeatzeko aukera ematen du.

